

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI

Iosu Murgiak, MISTO-ARALAR Taldeko batzarkidea, Batzar Nagusietako araudiari jarraikiz, presoei **buruzko arauz besteko saloa** aurkezten du hurrengo bilkura osoan eztabaidatua izan dadin.

Zioa

20 urte bete dira gobernu espainiarrak euskal presoak sakabanatzeko politikari hasiera eman zionetik. Denbora tarte luze horretan euskal presoen senideek miloika kilometro egin behar izan dituzte beren familiarrak ikusi ahal izateko.

Euskal presoen senideak zigortu dituzte. Zigortu inolako arrazoirik egon gabe. Eta zoritxarrez egoera horrek bere horretan dirau. Gaur egun gatazka politikoari loturiko 754 euskal presoak frantziar eta espainiar estatuko 84 espetxetan daude sakabanatuta; horietatik 599 espainiar estatuko 52 espetxetan, batez beste Euskal Herritik 630 kilometroetara.

Familiarrak ikusi ahal izateko urtean hainbeste kilometro egin beharrak trafiko istripuak izateko aukerak gora egitea eragin du, 20 urte hauetan 16 familiar trafiko istripuetan hilda suertatu direlarik.

Sakabanaketak, alderdi humanoa izateaz gain, badu ere alderdi ekonomikoa. Astean, familia bakoitzak batez beste 377 euroko gastua dauka familiarrak bisitatu ahal izateko.

Egoera hori arintzeko Eusko Jaurlaritzak dirulerro bat zabaldu zuen Euskal Herritik kanpoko espetxeetan dauden euskal presoen familiei dirulaguntza emateko asmoz, hain zuzen ere, gastu horiek arindu ahal izateko.

Berriki burutu diren hauteskunde autonomikoen gorabeherek, alderdien legeaz lagunduta, eragin dute Eusko Jaurlaritza aldatzea eta, antza, orain arte jasotzen ziren dirulaguntza horiek desagertu egingo dira.

Gure taldea ez dago ados erabaki horrekin ezer txarrik egin ez duten senideekiko bidegabea delako eta, gainera, gure herriak jasaten duen gatazka bide politiko soiletatik bideratu ahal izateko beste oztopo bat delako.

Sakabanaketak ez du laguntzen daukagun gatazka konpontzeko. Sakabanaketak ez du gatazka gizatartzen gero konponbideak eta bakea lortzeko.

Sakabanaketak presoen familiak zigortzen ditu.

Sakabanaketa barik dirulaguntzak ez lirateke beharrezkoak izango.

Arauz besteko saloa:

1.- Bizkaiko Batzar Nagusiek euskal presoek pairatzen duten sakabanaketa politikaren aurka daudela berretsi nahi dute eta, beraz, gobernu espainarrari praktika horrekin amaitzeko dei egiten diote.

2.- Bizkaiko Batzar Nagusiek dei egiten diote Foru Aldundiari, 2009ko aurrekontuetan Euskal Herritik kanpoko espetxeetan dauden euskal presoen senideentzako dirulerroa txertatu dezan, Eusko Jaurlaritzak diru laguntza horiek bertan behera uzten baldin baditu., modu horretan, sakabanaketak senide horiei eragiten dien zama ekonomikoa arintzeko.

2009ko apirilak 6
Iosu Murgia Glez. De Mendoza
Misto-Aralarreko Batzarkidea